

HAU EZ DA HOLLYWOOD

JULEN NAFARRATE AURREKOETXEA

Zergatik ez egin zinea sormenari mugak jarri gabe? Zergatik ez egin benetan sortu nahi duzun hori, erraieran sentitzen duzuna, senak agintzen dizuna, merkatuaren mugak ahaztuz? Eta hori guztia umore absurdo eta bihurriaren bidez egingo balitz? Galdera horien guztien erantzuna baiezko borobila da Ibarretxe anai eta zinegileen kasuan. Nere Falagane eta Jone Ibarretxek *Hau ez da Hollywood* (Ibarretxe anaien amaitu gabeko istorioa) / *Esto no es Hollywood* (La historia inacaba de los hermanos Ibarretxe) film luzean Josemi, Esteban eta Javierren "amaitu gabeko istorioa" kontatu dute; hiru zinegile bizkaitarrak hil egin ziren, eta Jone da Josemiren alaba.

Gaur izango da dokumentalaren mundu mailako estreinaldia Zinemiran, eta zuzendariak pozik eta ilusio handiarekin heldu dira Zinemaldira, zuzendu duten beren lehenengo film luzea baita: "Opari hutsa da hemen egotea. Publikoaren erreakzioa ezagutzeko irrikaz gaude". Joneren kasuan, gainera, hitzordu garrantzitsua izango da bere familia osoarentzat: "Lehengusu-lehengusinak etorriko dira Estatu Batuetatik, Kataluniatik... Sentitzen dugu, nolabait, euren istorioari amaiera biribila emateko aukera bikaina izango dela".

Umorea bizirauteko eta zinea egiteko modu gisa



Jone Ibarretxek eta Nere Falagane beren lehenengo filma aurkeztuko dute gaur Zinemiran.

GARAZI VELASCO

Baina, nortzuk ziren benetan Ibarretxe anaiak, eta zergatik da horren berezia eurek egiten zuten zinea? Joneren hitzetan, "oso mundu bitxia sortu zuten, oso berezkoa, askotan jendeak ez zuena oso ondo ulertzen,

eta egia esaten badut, hasiera batean nik ere ez. Oso mundu artistikoa da, erabat surrealista, absurdua... eta garai horretan Euskal Herrian egiten ari zen zinearekin bat egiten ez zuena". Hori bai, euren lan guztiek

bazuten hari amankomun bat, euren bizitzetan ere presente egoten zena: umorea.

Falagane ez zituen Ibarretxe anaiak ezagutu, baina ezagutuko balitu bezala sentitzen du peliku-

la egin ostean: "Zenbat eta gehiago ezagutu, gero eta gogo gehiago izan dut haiekin aurrez aurre taberna batean egoteko. Pena ematen dit ezagutu ez izanak". Ibarretxe anaiak, gainera, familiarrean eta lagunengandik sortzen zuten zinea. Horretan ere apurtzaileak ziren. Edukietan ez ezik, formetan ere. Jonek azaltzen duenez, "euren pasioa oso kutsakorra zen, berehala murgiltzen ziren euren unibertsoan. Horrelakoak ziren, horrelakoa zen euren mundua, ez zuten merkatuan pentsatzen, ez zuten kezkarik diruagatik. Puntu batean kaotikoa zen, baina horrek, aldi berean, harrapatzen zintuen".

Ibarretxe anaiak "Euskal Herriko Marx anaiak" bezala izendatuak izan dira, edo, beren umore surrealista kontuan harturik, "Euskal Herriko Monty Pythonak". Besteak beste, *Solo se muere dos veces* (1996), *Sabotage!* (2000) eta *Un mundo casi perfecto* (2001) lanak zuzendu zituzten. Ekoizle moduan ere, Pablo Giogelliren *Las Acacias* film luzean (Horizontes Saria, 2011) edota Nacho Vigalondoren *7:35 de la mañana* (2003) film labur ezagunean parte hartu zuten. "Garai batean, euren pelikulak egiteaz gain, beste batzuei euren proiektuak garatzen laguntzen zieten. Baina beti euren ildoko lanak babestu zituzten, zine ez oso ohikoa edo mainstream ez zena".

Felicidades



Hay cabezas icónicas. Cabezas grandes. Pequeñas.
Cabezas que están sobre los hombros, y otras que vuelan.
Las hay estrechas y, por suerte, más abiertas.
Hay cabezas pensantes. Cabezas creativas.
Cabezas que querían ser otras cabezas.
Cabezas que cambian. Que se transforman.
Y cabezas que trabajan sin descanso para interpretar otras cabezas.
Como la tuya, Pedro. O la nuestra.



Si está en tu cabeza, está en Deluxe.